# ONGI ETORRI ORERETA IKASTOLARA
## BIGARREN HEZKUNTZA

Dokumentu honetan, gurekin lanean hasteko beharrezkoa izango duzun **informazio praktikoa** duzu.
**Baliabide guztiak estekatuak** daude. Har ezazu tartetxo bat hauek guztiak "kuxkuxeatzeko".
Edozein zalantza izanez gero**, ez izan zalantzarik gurekin harremanetan jartzeko.**

**ZORTE ON!**

## GMAIL

**Google kontua**. Ez dugu mezularitzarako erabiltzen. Ikastolaz kanpoko erabiltzaileekin komunikatzeko bakarrik.

## CALENDAR

Gmailera DBHko egutegiaren **gonbidapena** jasoko duzu. Egutegi hau zurean inportatu beharko duzu.
Bertan, **eguneroko ekintzak** ikusiko dituzu. Oso garrantzitsua da tresna honen egunerokotasuneko erabilera.
**Izartxoa (*)** aurrean baldin badu, **informazio gehiago adierazita dagoela esan nahi du.**

## DRIVE

**Inprimatzeko** erabiltzen dugu. Inprimatu nahi dugun dokumentua bertan gordetzen dugu, ondoren inprimatu ahal izateko.
**Ikasleeen informaziorik EZ DUGU gorde behar bertan.**

## INIKA

**Egunero** erabiltzen dugun tresna da. *Gurasoekin komunikatzeko, ikasleen huts egiteak erregistratzeko, zaintzak eskatzeko, bilerak erregistratzeko, mezularitza...*
**Mugikorrerako APP-a ere badago.**

**KARPETA [HONETAN](#)**, Inika erabiltzeko LAGUNTZA BIDEOAK aurkituko dituzu.

## HODEIA

Ikastolan erabiltzen dugun **DOKUMENTAZIO GUZTIA** bertan dugu.
*Ikasleekin erabiltzen dugun material didaktikoa, koordinazio bileretako aktak, dokumentazioa...*

Sortzen dugun material guztia bertan gordetzea OSO GARRANTZITSUA da.




## LANGILE ATARIA

Langile atarian **INFORMAZIO PRAKTIKOA** topatuko dugu:

- Baliabideetarako sarbidea *(Inika, gmail, Hodeia...)*
- Altak eta bajak eskatzeko gunea.
- Ikastolako egutegia.
- Baimenak eskatzeko gunea.
- ...

Baita ere, hilabetean zehar antolatuko diren **ekintzen informazioa** izango duzu, baita bertan parte hartzeko **izen-emate orriak** ere.

**OSTIRALETAN ASTEKO OHARRAK** izaten ditugu ikusgai LANGILE ATARIAN.
Etapa bakoitzak bere asteko oharrak publikatzen ditu.
**OSO GARRANTZITSUA da** hauek astero-astero irakurtzea.



## LAN ERREGISTROA

Hilabete bukaeran, langile bakoitzak bere **LAN ERREGISTROA bete** beharko du dagokion LAN EGUTEGIAREN arabera.

Hilabete bukaeran **zuzendaritzan** utzi beharko du bere kodearekin.
[**KODEAK**](#)

## LAN TALDEAK

**2 astetik behin**, lan taldeka elkartuko gara, asteazkenetan **14:00-15:00etara.** [**TALDEAK**](#)

## ARDURAK

Irakasle bakoitzak ikasturtean zehar ardura bat izango du. [**ARDURAK**](#)